

itsasondo^{2.0}

Herriko aldizkaria (((9. zk))) ekaina-iraila 2010

Itsasondok badu etorkizuna

Urkiko eskola 1949-1969

Cayetana Mendes: herriko etorkina

Arbelgintza Itsasondon: tunela eta arbela






Uda usainarekin batera iritsi zaigu aldizkaria. Azken aleari jarraiki, oraingoan ere makina bat kontu eta bitxikeria gordetzen ditu 9. ale honek. Apurka-apurka gero eta herri-tar gehiago animatu zarete aldizkarian parte hartzera, eta hasi baino lehen, esker-rak eman nahi genizkizueke, osterantze-an ez bailitzateke posible izango Itsasondo 2.0 gure postontzietan izatea.

Kontakizunetik kontakizunera, ari gara Itsasondoren izana argitara ekarri eta herritarren pasadizo eta anekdotak eza-gutzen. Gaurkoan, Arantxa Arzaren esku-tik Urkiako auzoan eskolak izan zireneko garaia ezagutzeko parada izango dugu, baita herriko harrobiaren historia ere. Horrez gainera, Cabo Verdetik etorri eta aspaldidanik gure artean dugun Cayetanari eginiko elkarrizketa prestatu du Unai Agirrek. Erreportari taldea ere zuen artean ibili da San Juan suaren ingu-ruko galdera sortarekin. Atal berri bat ere sortu dugu, teknologia berriei aldizkarian tokitxo bat eskaini nahirik. Horrela, Internet eta sare sozialen inguruko infor-mazioa ere eskuragarri duzue. Baina, ez hori bakarrik, beste hamaika kontu ere baditugu zuei kontatzeko; beraz, astindu aldizkaria eta ase zuen jakin-mina! ■

Itsasondoko biztanlegoa



Aurkibidea

- 03. **Agenda 21:** 5. edukiontzia dela eta
- 04. **Udaleko berriak.**
- 05. **Herri eskola:** Eskola txikietako olinpiadak.
- 06. **Haur eskola:** Hozkak egitea umeen gauza da.
- 07-09. **Elkarrizketa:** Cayetana Mendes -herriko etorkina-.
- 10. **Gazteria, Berdintasuna, Gizartea.**
- 11. **Inkesta:** San Joan Sua.
- 12-13. **Arbelgintza Itsasondon:** Tunela eta arbela.
- 14-17. **Zaharrak berri:** Urkiko Eskola: 1942-1969
- 18. **Ibilaldia:** Itsasondo-Murumendi.
- 20. **Arantzadi:** Zuhaitz zaharrak, gure mendietako altxorra
- 21. **Informatika:** Sare Sozialak, moda bat?
- 22. **Eskola:** Maiatzak 8, Eskola Txikien Eguna.
- 23-25. **Kultura.**
- 26. **Liburuaren txokoa.**
- 27. **Lorzaintza eta sukaldaritza.**
- 28. **Esaera zaharrak. Kultur agenda. Lehiaketa.**

Sarrerako bertsoak

DOINUA: *Mutil koxkor bat*

*Garai bateko Urkiko eskolan egindako ibilerak,
Cabo Verdetik heldu zitzaigun Cayetanari galderak,
Txominen ama, informatika, Murumendiko igoerak... aukera asko jarri dizkigu herri honen izaerak eta alferrik galtzen uzteko ez dira izaten aukerak.*

Itsasondoko arbelgintzaren harrobi zaharretan zehar eta eskola txikietako festa giroa hastear, lore usainez jantziko dira, hainbat errezeta ear txapelketa bat bada agendan denok har dezagun elkar... gutxi gerala, baina geranak ez al degu izan behar?





5. Edukiontzia dela eta

Aurreko alean Usurbilgo hondakinak biltzeko atez-ateko sistemaren berri eman genizuen: bilketa eredu horren inguruko funtzionamendua, lortutako emaitzak eta sistema ezartzerakoan izan zen herritarren partehartze prozesua.



Sasietako Mankomunitateko ordezkariak apirilean etxeetako hondakinen zati organikoaren bilketa berria aurkeztu zuten. Bi legislatura badira, Itsasondoko Udala Sasietari materia organikoaren arazoaren inguruan, irtenbideak eskatzen hasi zela. Irtenbidea atseginagoa litzateke, lehenago etorri izan balitz eta eraginkorragoa balitz, baina tira. Bilketa eredu hau kalean jarriko diren 5. edukiontzi marroiaren bidez egingo da. Asmoa, bertan biltzen dena ondoren konposta egiteko erabiltzea izango da. 5. edukiontzi honek badu beste edukiontzietatik bereiztasun bat: sarraila berezia izango dute eta borondatez bilketa sistema honetan parte hartu nahi duten herritarrei aurrez banatuko zaien giltza baten bidez bakarrik ireki ahal izango da. Sasietako ordezkariaren esanetan, giltza bidezko edukiontzi honen zergatia gutxi batzuk beste guztien ahalegina hankaz gora ez botatzea da, kalitate handitako konposta lortuz.

5. edukiontzi hauek lehen fasean, goierriko 8 udalerritan jarriko dira, tartean Itsasondon. Baina sistema hau probatua izan den lekutan lortutako emaitzak ikusita hainbat zalantza sortzen dizkigu 5. edukiontzi honek. Sistema hau Gipuzkoa osora zabaltzea erabaki aurretik Are-

txabaleta, Azkoitia, Azpeitia, Zarautz, Zumaia eta Amaran jarri izan da martxan. Guztien artean 87.000 biztanle inguru daude, baina hauetatik **%14 inguruk besterik ez du parte hartu**. Hau da 5. edukiontziaekin herritarren gehiengoak berdin birziklatzen jarraitzen dute (hau da, hondakin organikoak ez bereizten jarraitzen dute). Beraz, benetako alternatiba al da 5. edukiontzia?

Egoera ikusita, Itsasondoko Udalak Sasietako Mankomunitateak 5. edukiontzia martxan jartzeko aurkeztu duen presarekin kezka agertu du eta 8 puntu jasotzen dituen mozioa onartu du. Mozio honetan, Sasietako Mankomunitateari hondakinen kudeaketarako aukera guztiak aztertzeko deia egiten zaio, aztertu gabeko aukerarik ez alboratzeko eskatuz. Honela, aukera ezberdinen inguruko azterketa burutu aurretik 5. edukiontzia bezela ezaguturiko egitasmoa ez abian jartzea eskatzen da, egitasmo hau abiarazteak suposatzen dituzkeen inbertsioak geldiaraziz.

Goierriin gauzatzen den zabor biltzaileen ustiapena duen enpresari bi urteko epean kontratua amaitzen zaiola kontutan izanik, esleipen berrirako oinarriak izan litezkeenak definitzen hasteko momentua dela ikusten da, eta beraz sistema ezberdinen inguruko azterketa egiteko garai ezinhobea dela.

Azkenik, sistema ezberdinen azterketa egin ondoren, eztabaida publikoa bultzatzearen beharra ere azpimarratzen du mozioak, bide horretan Sasietako Mankomunitateak eman beharreko pausuak zehaztea eskatuz. ■



Juantxo Lopez de Uralde Greenpeaceko burua Usurbilgo atez ateko edukiontziak eskuan dituela.

Udaleko berriak



Kaleak garbitzeko makina

Itsasondoko Udalak 2009ko urtean kaleak garbitzeko makina erosteko diru-laguntza eskatu zion Eusko Jaurlaritzari, Agenda 21eko programaren barruan.

Aipatutako diru-laguntzei buruzko erabakia jaso ondoren (50.915 €) tramitean dago kaleak garbitzeko makina erosteko kontratazioa. Deialdi publikoa egin da eta lau enpresen proposamenak jaso dira. Erabakia hurrengo hilabetean hartzea espero da, beraz, laster izango dugu kaleak garbitzeko makina herriko kaleetan zehar ibiltzeko moduan.

Izaskun pentsioaren aurreko zatia urbanizatzea

Hasi dira dagoeneko Estatuko Planaren bidez finantzatzen diren Izaskun Pentsioaren aurreko urbanizazio obrak. Lanak Lurkide Hondalanak enpresari esleitu zaizkio, bere proposamena aurkeztu diren bi eskaintzen artean merkeena zelako. Obrak 53452,87 €tan esleitu dira.

Langabezian dauden langileak kontratatzea

Urtero bezala aurten ere Udalak langabezian dauden langileak kontratatuko ditu. Aurten, honako kontratazioetarako laguntzak jaso dira: Eusko Jaurlaritzak bi igeltsero kontratatzekeo laguntza agindu du. Kontratazioak sei hilabeterako izango dira.

Foru Aldundiak lorezaintza-peoi lanetan aritzeko langile bat kontratatzekeo laguntza agindu digu. Kontratazioa hiru hilabeterako izango da.

Kaxintane taberna

Kaxintane taberna itxi eta gero, ustiaketa eramateko interesa duten pertsonak aurkitzeko deialdia egin ondoren, proposamen bakarra aurkeztu da, eta maiatzaren 24an hartutako erabakiaren arabera, ustiaketa errentan eman zaie KAXINTANE C.B. enpresa sortu duten Aitor Garnendia Mate, Maria Rosario Noguera Gorriti eta Maria Teresa Irastorza Fernandez herritarrei.

Zorte ona opa diegu Kaxintane tabernan.



Pantailak

Teknologia berriek ematen dituzten aukerak aprobetxatu asmoz, herriko laupabost lekutan (Lurdes dendan, sendagile kontsultan, udaletxean, Kaxintane tabernan...) pantaila elektronikoak jartzeko proiektua dago. Pantaila horietan herriko berriak modu erakargarrian agertuko dira, gai desberdinen arabera antolatuak. Era horretan paperaren erabilera gutxitu ahal izango da eta herritarrak momentu oro informatuta egotea lortuko dugu. Uste dugu sistema hau hurrengo hilabetean martxan egongo dela. ■

Eskola txikietako olinpiadak

Itsasondoko ikasleak Tolosara joan dira beste eskola txikietako ikasleekin harremanak indartzeko.



01-02 Aiora G. eta Aiora Z. korrika egiteko prest.
03 Agustin zesta puntan jolasten.
04 Hamaiketako eman jaten.

Apirilaren 16an, ostirala, Eskola Txikietako Olinpiadak ospatu genituen, hain zuzen ere, Tolosako Berazubi futbol zelaian. Bertan, Gabiri, Altzo, Bidegoian, Errezil, Berastegi, Alkiza, Berrobi, Aduna, Albiztur, Lizartza, Zizurkil, Ikaztegieta eta Itsasondoko ikasleek parte hartu genuen. 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleak kirola oinarri harturik ondo pasatzera joan ginen. Helburua nagusia: lagunak egin eta kirolaren bidez elkarren arteko harremanak sendotzea. Hauek dira egin genituen kirolak: sokatira, zesta punta, brileta, pisu jaurtiketa, luzeera jauzia, erreleboak... Taldeak aurretik eginik zeuden eta denak nahastuta geunden, hau da, seiko taldeak ziren eta ia denak eskola desberdinetakoek osatuta. Oso ondo pasatu genuen, helburua ez baitzen irabaztea.

Atsedendian hamaiketako eman ziguten: zumoa eta gailetak. Ondoren, jolasten jarraitu genuen.

Azkenik, 13 eskolelako ikasle guztiok ohorezko itzulia egin eta agur esan genuen. ■

Leku egokia hartzen ohorezko itzulia egiteko.



Hozka egitea umeen gauza da

Umeek hozka egiten dute, baina zergatik? Askotan guraso eta hezitzaileok kezkatuta egoten gara haurrek erakusten dituzten jarrera hauen aurrean eta ez dakigu nola konpondu hau. Beldur gara ea beste gurasoek zer esango diguten; gure umea dela erasotzailea gogorarazten digute askotan. Honen aurrean zer egin edo nola jokatu azaldu zigun apirilaren 26an Joxe Ramon Mauduit psikologo eta masajistak. Hona hemen bere hitzaldiaren pintzelada bat.

Gure eskoletan, parkean, etxean...askotan aurkitzen gara halako egoerekin. Lasai zihoan eguna guztiz zapuzten da.

Hozka egitea eta kasketekin zerkusia duten beste hainbat adierazpen, kontrolrik gabeko negarrak, bultzadak, iletik tiratzea...adin jakin batean azaltzen dira, eta normalean zerbait berehala lortu ezinaren ondorioz sortzen den ezinegonarengatik.

Haurraren adinaren arabera, jarrera hauek arazo direla esango dugu, baita maiztasunaren eta adierazpen hauen intentsitatearen arabera ere. Frustazioa erakusten duten beste jarrera esanguratsu batzuk adierazten diren begiratu behar da eta ea zenbat eragin duen bere inguruan.

Haurraren pentsamendua garatzen doan heinean eta esanahiak ulertzen doan heinean, hizkuntzak garrantzia hartzen du eta jarrera hauek kontrolatuagoak izaten dira, eta bigarren plano batean gelditzen dira.

Baina, ume batzuek komunikatzeko era hau erabiltzen duten bitartean, beste batzuk oso gutxi erabiltzen dute, eta beste batzuek bat ere ez. Haur bakoitza desberdina da eta horregatik, gurasoekin hitz egin eta hausnartu beharko litzateke egoera hauen aurrean nola jokatu jakiteko.

Hausnarketa egitean haurraren pertsonalitatea kontuan hartu behar da, baita familia eta eskolaren heziketa modua ere. Izan ere, nagusien jokaerek eragin handia dute haurrengan, hauek baldintzatu eta aldatu baitezakete haurraren jokamoldea.

Hozka egitearen azpian, bere sakonean, emozio aldetik gatazka bat dagoela adierazten du, momentuan sortua edo aspalditik dakarrena. Haurrak gainditu ezin duen edo beste modu batera nola bideratu ez dakien gatazka da. Ez dugu ahaztu behar, frustazioak bizitza osoan



jasango ditugula, eta haurtzaroa horren hasiera besterik ez dela. Horrez gain, batzuetan beste arazo batzuk aurkitu ditza-kegu, hala nola gehiegi babestea, mugak, jeloskorkeria...eta hemen ere haurra biktima izango da.

Gurasoekin hitz egin behar da, etxeko giroa aztertu behar da. Agian haurra etxean ikusten duenaren ispilua da. Edo haurrak berarekin gehiago egoteko beharra du. Edo baztertua sentitzen da. Edo gurasoekin haserre dago. Edo...hamaika arrazoi izan daitezke haurrak gatazka bat izateko. Haur bakoitza mundu bat da eta arrazoi desberdinak daude haurra erasoan hasteko.

Zer egin daiteke?

Erasoa egin duen haurraren parean jarri. Hitzak jartzen lagundu behar zaio, nahi zuena eta lortu ez duena zer den, desberdin jarduteko beste aukera bat proposatu eta moderatzaile bezala jokatu.

Errietarik ez egin publikoki, haurrak irudi zehatz bat hartuko du beste haurraren artean eta gero hori zaila da aldatzea. Horren ordez, ekintza positiboak goraiatu, esan ze jarrera segitu behar den, zer dagoen gaizki egina.

- Erasoa egin duen haurraren gaitasuna indibidualki. Berekin hitz egin, gaizki egin duena adierazi.
- Ea zer gertatu zaion galdetu (nahiz eta ez erantzun). Erakutsi behar zaio haserre zegoelako min egin duela.
- Bere haserre ulertzen duzela esan eta mugak jarri. Horrek jarrera hori gutxitu dezake.
- Gertakariko bi haurrak hurbildu eta talde giroan berriz sartu, jolasten segitzera animatu.

Bukatzeko, egunean zehar haurrak tentsio asko pasa ditzake gertatzen diren egoerengatik eta nolabait tentsio horiek askatzeko beharra sentitzen dute. Adin hauetan askatzeko modua hozkak, kasketak eta abar izaten dira. Beraz, hizkuntza sartzen dihoan heinean tentsio hauek bideratzeko aukera etorriko da. Horrela, guraso bezala tentsio horiek bideratzen lagunduko diegu, adibidez, hozka egiteko materialak emanaz edo kojina erakutsiz, hari ostiokak emateko; horrela, haurrak ikasiko du badaudela beste modu batzuk tentsioak askatzeko, besteari minik eman gabe. Azken finean, hobeto da askatzea gordetzea baino, zeren bestela tentsioa handitzen joaten da eta hozkek eta kasketek intentsitate handiagoa hartzen dute.

Hauxe izan genuen egun horretako hitzaldian landutako gaia. Hemendik aurrera ere, zuen proposamenak kontuan hartuz, landuko ditugu beste gai batzuk. Horretarako, gogoratu haurreskolako atek zabalik dituzuela. ■



Cayetana Mendes

Herriko etorkina

Orain dela hogeita bost urte Afrikako Cabo Verde uhartetik Cayetana eta bere familia gure herrira etorri ziren. Beraien bizitza oso gogorra izan da urte hauetan. Gure artean izan ditugu, baina gure herritar izanda, ba ote dakigu benetan zeintzuk diren, izan dituzten arazoak, beraien ohiturak, kultura, hizkuntza...

Atsegin handiz hartu gintuen Cayetanak bere etxe aurrean

Zein da Cayetana?

Jendeak ez nau ezagutzen.

Cabo Verdetik etorri zineten. Non dago Cabo Verde?

Cabo Verde Atlantiko Ozeanoan dagoen artxipelago bat da, Kanariar uharteen azpian eta Senegal estatuaren kostaldean. Artxipelagoa hamar uharte handiz osatua dago (Santiago, Santo Antao, Boa Vista, Fogo, Sao Nicolau, Maio, Sao Vicente, Sal, Brava eta Santa Luzia), denetara 500.000 biztanle dauzka eta 4000km² inguru. Hiriburua Praia da, Santiago uhartean kokatzen da, ni bertakoa nintzen. Bertako hizkuntza criouloa da, baina portugesa da hizkuntza ofiziala, hemen gaztelania eta euskararekin gertatzen den bezala. Hala eta guztiz ere orain ingelesa, frantsesa... denetik hitz egiten da. Turismoa du diru iturri nagusi.

Cabo Verde kolonia portugesa izan zen 1975era arte, eta urte horretan independentzia lortu zuen.

Zenbat senide zarete?

Beste zortzi senide dauzkat. Lau kanpoan bizi dira ni bezala, hiru Frantzian eta bat Portugalen, eta beste laurak Cabo Verden. Ahal dudanean Frantziara joaten naiz nire senideei bisita egitera.

Zergatik erabaki zenuten Itsasondora etortzea?

Nik ez neukan asmorik, baina senarra hemen zebilenez lanean, zuzenean etorri ginen. Jende asko hiriburu handietara etortzen da, baina beraiek Itsasondoko Kalea etxe zaharrera (eskailera batzuk zeuzkan atera) etorri ziren. Jendeak hasieran pentsatzen zuen Legorretara joan zirela, han Cabo Verdeko beste ba-

tzuk bizi zirelako (Jason lan egiten duen Mikel esaterako), baina ez, beraiek zuzenean Itsasondora etorri ziren.

Nola izan zen bidaiak?

Senarra Espainian lanean zegoenez, Cabo Verden Espainiako enbaxadara joan nintzen bisatuaren bila. Han esan zidaten Portugaleko bisatuarekin Portugalera joan eta ondoren Portugalen emango zidatela Espainiakoa. Hegazkina hartu genuen Txominek eta biok eta Lisboa iritsi ginen, han tren hartu eta Salamancan geratu gintuzten, dokumentazioa falta zitzaigula esanez. Senarrari deitu eta paperak konpontzen hasi ginen; Salamancan astebete egon ginen hotel batean erretentuta. Azkenean, guardia zibilak taxi bat ipini, 200km egin eta tranbia batean iritsi ginen Itsasondora.

Txomin eta biok?

Garrantzitsua da jakitea, hamazazpi urterekin ezkondu nintzela nire senarrarekin eta bost hilabetetara Txominez haurdun geratu nintzela. Ondorengo bederatzi urteetan, senarra Europan zegoenez, Txominek bere aita ez zuen ikusi eta nik hazi behar izan nuen semea bakarrik.

Itsasondora iristean?

Iritsi ginenean, 1986ko otsailaren 28an, eguraldi txarra zegoen, izugarritzko hotza egiten zuen, nire baitan esaten nuen: *“nora etorri naiz? Buelta egin eta nire herrira itzuliko naiz”*, baina bertan geratu nintzen. Harritu ninduen beste gauza bat, etxeak ikusten ziren baina jenderik ez. Bere herrialdean jende guztia kalean ibiltzen zen eta ate guztiak irekiak egoten ziren, nahi zuenak leku batera joan edo bestera. Nik jendea behar nuen eta eskolatik hain gertu nengoenez, momentu oro haurrak ikustera joaten nintzen, gehienbat atsedean denboran. Herriko jende askok ere lagundu zidan hasiera hartan, esaterako Kalea taberna zeukaten Kolestin eta M^a Karmenek, baita Paquitak, Juanak, Margaritak, Marisak, Julitak, Juanitak, Begoñak... Denek esaten zidaten etxean ez geratzeko, jendearekin erlazionatzeko. Hasiera horretan, Maite irakasleak ere lagundu zion hizkuntzarekin zeuzkan arazoak konpontzen.

Handik denbora batera Otamendiko etxera pasatu ginen.

Karolina Itsasondon jaio zen, ezta?

Etorri eta berehala Karolinaz haurdun geratu nintzen. Hala ere, Karolina izan baino bi hilabete lehenago, senarra lanik gabe geratu zen eta jan gutxi zeukaten, orduan laguntza eske herriko apaizarena jo zuen eta Iñakik jendearekin hitz egin eta janariz beteta etorri zen (lentejak, garbantzuak, arroza, makarroiak...). Hemen familiarik ez genuen eta ezin genien laguntzarik eskatu; hala ere, herriko jendeak lagundu zigun.

Hasieran, komunikazio arazo itzelak izan nituen, baina Karolinaz haurdun nongoen bitartean Kaleko M^a Karmenek asko lagundu zidan eta izateko egunean ere bai, senarra ez bainuen ondoan orduan ere. Anbulantzia etorri eta korrika iritsi ginen ospitalera; handik ordu erdira izan nuen haurra.

Zuen bizitza?

Nire senarrarekin gauzak ez zeuden oso ondo, baina Karolina eduki eta handik urte batzuetara Ordiziara alde egin nuen nire seme-alabekin. Lehenik, Beasaingo harrera-etxe batean hogeita bederatzi egunez egon nintzen eta ondoren Ordiziara joateko, hemen bost urteetan



Cayetana etxeko sukaldean azalpenak ematen.

gogor aritu nintzen lanean etxeak garbitzen, jatetxetan... gau eta egun, etxea ordaindu eta seme alabak hazteko. Bitartean, Itsasondoko etxean zegoen senarra.

Separazio prozesua hasi nuenean, abokatuaren laguntza izan nuen eta haren gomendioak jarraitu nituen arazorik ez izateko. Bitarte horretan Karolina aitarekin bizi zen. Txominek 22 urte eta Karolinak 8 urte zeuzkaten. Juezari nire bizitza osoa kontatu nion eta senarrarekin izan nituen gorabeherak ere bai. Garbi utzi nion seme-alabak nireak zirela eta nik hazi nituela eta aita ez zela sekula beraietaz kezkatu.

Prozesu honetan, gertakari bat izan zen eta horrek bideratu zuen separazioa bere alde izatera. Juezak gertaturikoa jakin zuenean, dena konponduta zegoela esan zidan, Ordiziako etxeko fakturak eraman eta Itsasondoko etxea nire izenean ipini zuen, eta nire seme-alaben kustodia ere bai. Senarrak betirako alde egin zuen. Orain hamabi-hamahiru urte daromat bereiztuta.

Seme-alabek nire abizena daukate, Mendes, eta ondoren aitarena.

Bikote bat ondo badago ezkondata bizi daiteke, gainontzean oso txarra da; bizitza honetan ez gaude beste pertsona bat aguantatzeko.

Nolako laguntzak izan dituzue?

Momentu batean, Txomin eta biok lanik gabe geratu ginen, eta laguntza eske ibili nintzen, ez nire umeei jaten emateko, baidik eskolara joan zitezten. Ez Itsasondoko eta ez Ordiziako udalek ez zidaten lagundu, eta azkenean Donostiako Diputazioa joan nintzen eta han eman zizkidaten behar nituen laguntzak.

Paperekin, nola moldatu zarete?

Txominek hamalau urte zeuzkala, Itsasondoko Herri Eskolatik Iparraldera txango bat egin behar zuten, baina Txomini “Permiso de Residencia” falta zitzaion eta ezin izan zuen joan. Motxila egina zuen eta izugarritzko pena eman zion. Iñaki apaiza etorri eta Donostiara joan ziren paperak egitera. Iñakik esan zien, bere senarrarekin ezkondata egotean zuzenean eskura zeuzkala baimen horiek eta baita bere seme-alabek ere.

Karolinarekin ere gorabehera bat izan zuen udaletxean. Jaio zenean, espainiar nazionalitatea eman zioten, baina ez zeukan “Permiso de Residencia”, zer aldrebeskeria, orduan Tolosako juzgadura joan ziren paperak aldatzera. Orduan ez zen gaur egun bezala; orain hemen jaiotzen bazara zuzenean ematen dizute nazionalitatea. Karolinak orain dela hiru urte jaso ditu NAN eta pasaporteak. Bere semeak esaten duen bezala, hau ez da serioa, jendeak gauzak nahi dituen bezala egiten ditu.

Eta zu?

Separatu ondoren, juezak esan zidan Gizarte Segurantzara kotizatu eta ondoren emango zidala nazionalitatea, hau da, lan kontratu bat lortu behar nuela. Urte askotan, kontraturik gabe lanean aritu nintzen; azkenean, Gurutze Gorriaren bidez lortu nuen nire lehen lan kontratua. Nire senideek Frantzian ez daukate horrelako arazorik.

Orain non zabilta lanean?

Irurako enpresa batentzat lan egiten dut enpresak garbitzen, esaterako CAFeko bulegoak garbitzen aritzen naiz, eta beste enpresa batekoak ere bai. Baina, leku askotan ibili naiz lanean: Fagorren,



Otamendiko etxe atarian.

Lurako enpresa horretan, etxeetan, tabernetan (Ibarren ere aritu nintzen)...

Cabo Verdez oroitzen al zara?

Bai dezente, ama bertan bizi da. Han base-ri batean bizi ginen nekazari eta abeltzain bezala, barazki eta fruituak ekoizten genituen eta denetariko animaliak geneuzkan, oiloak, ahuntzak... Ondoren, merkatura joaten ginen horiek saltzera, hemen Ordiziako azokan egiten den bezala. Hango ohitura bat, haragi egosia jatea da patata, arto taloak... Han hemen baino fruitu aukera gehiago dago, baina adibidez ez dago porrurik, ezta bainarik ere.

Han kristau katoliko ugari daude eta honekin erlazionatutako ospakizun guztiak egiten dira: eguberriak, inauteriak, Aste Santua, abuztuaren hamabostean Ama Birjinaren eguna... orain gero eta musulman gehiago daude.

Independentziaren aurretik, emakumearen egoera oso kaxkarra zen, esaterako ezin genuen eskolara joan, eta horrek oso haserre jartzen nau, emakumeak gizona zerbitzatzeko hezten dituzte eta Afrikatik hona etortzen diren emakumeak ez dira pertsona askeak. Emakume edo gizonak, bere ikasketak eta bere lana izan behar ditu, baina ezin da pertsona bat bestearen menpean egon. Afrikako estatuak gizonezkoentzat daude prestatuak, eta nola bizi daiteke horrela?

Zer pentsatzen duzu hona etortzen diren Afrikako emakumeez?

Behin Donostian, zapia buruan eta estalita zeuden emakume talde batekin topo egin nuen, nik ez dut ulertzen, orain ez daude Afrikan, orain hemen daude. Kontatu nien, urte asko neramatzala (hogeita bost) eta gainera nire senarraz banatuta nengo-



01



02



03

- 01 Cayetana 17 urte zituenean.
- 02 Txomin Itsasondora etorri berritan.
- 03 Cayetana bere ahizpekin Frantzian.

ela, besteek ezin zuten sinetsi: "Gizonetik separatuta!". Gertu zeuden gizonezko Afrikar batzuk isilik egoteko esaten zidaten. Jarraitu nien esaten, gizonezkoek ez diela uzten hitz egiten eta hitz egiten badute, etxera joandakoan zigortu egiten dituztela, gizonezkoen azpian bizi direla (gainera, batzuetan hil egin ditzakete).

Hemendik gertu, ezagutzen dut marokoar baten emaztea, ume gehiago izan nahi ez duena eta informazio eske etorri zen, baina gizona ez dago prest preserbatiboak erabiltzeko, orduan ez dauka zer eginik. Emakume oso politak dira, baina estalita joan beharra daukate.

Haurrak, mutil zein neska, denak berdin hezi behar dira eta afrikar gurasoek hori ez dute egiten.

Hona etorri nintzenean emakume poli-ziak ikusteak harritu ninduen, Afrikan ezi-nezkoa litzateke.

Ba al duzu anekdotarik kontatzeko?

Txomin langabezian egon izan da, baina esaterako, Ordiziako Richarrek Ilunpe

tabernan lana eman zion hasiera haietan eta ondoren Zaldibiako Matxainekin hasi zen lanean. Honek Aristrainentzat lan batzuk egiten zituen eta bertako nagusi batek fabrikatan Txomin ikustean, horrela esaten omen zuen: "vamos a tener el primer negro en la fábrica". Txomini ez zitzaion hori gustatzen, baina ez zuen ezer esan. Beste egun batean, nagusi hori aurrean zegoela, Txomin Matxainekin euskaraz ikusi zuen eta aho zabalik gertatu omen zen. Nagusia zuzenean Txominengana joan eta barkamena eskatu behar izan zion.

Txominek eta berak criouloa hitz egiten dute etxean, baina Karolinak ez daki.

Eta Itsasondo bezalako herri batean zerbait aldatuko zenuke?

Jendearen arteko komunikazioa, jendeak gehiago hitz egin beharko luke.

Inoiz izan duzun ametsen bat?

Ez dut amets berezirik, nire seme-alabak ondo egotea. ■

Berdintasun saileko berriak

Martxoaren 8an, urtero bezala, Itsasondon ekintzak egon ziren emakumeen egun berezi hau ospatzeko. Aurten, Emakumeen egunerako ipuin kontalari saioa antolatu zen, aurreko urtean egindako Hezkidetzta proiektuari jarraipena emateko asmoarekin.

Gaur egungo Emakumearen eguna XIX. mendeko eskubide aldarrikapen baten ondorioa da. Egun horretan emakume langile batzuk kalera irten ziren eskubideen alde borrokatzeko eta heriotza aurkitu zuten. Hasiera batean

Emakume Langileen eguna deitu zitzaien, baina ondoren Emakumearen Eguna bezala aldarrikatu zen. Emakume guztiak lan egiten dutelako, nahiz eta lan merkatuan izan ez.

Hala era, garai guztiak dira onak emakumeen eskubide berdintasuna aldarrikatzeko eta hauen alde borroka egiteko, baina momentu honetan bizi ditugunak are garrantzitsuagoak dira. Krisi ekonomiko batean omen gaude murgilduak, edo horrela diote agintariek, eta horrek langileen eskubideen murrizketa suposatzen du, bai behintzat lanpostu galera zenbait kasutan. Eta lan prekarietatea areagotuko duten zenbait neurri eskatzea ere bai.

Ez dugu ahaztu behar momentu hauetan, momentu txar hauetan, krisiak gehien erasaten dituen artean daude emakumeak. Lanpostu prekarietatea emakumeengan, eta horrek krisi garaian kalte handiagoak eragitea suposatzen du. Horrela bada, momentu hauetan argi ibitzeko eta eskubideen alde egindako guztia ez galtzeko momentua da. Eta, noski, eskubideen aldarrikapenak egiteko unea ere bada. ■

Martxoaren 8ko afariko partaide batzuk.



Informazio gehiago:

<http://itsasondokoberdintasunsaila.blogspot.com/>

gizartea

Mendekotasun legea



Mendekotasunaren legea 2006ko abenduan argitaratu zen, egunero oinarriko ekintzetan zailtasunak dituzten pertsonen hainbat zerbitzu eta prestazio eskaintzeko. Urteak aurrera egin ahala bai zerbitzuek eta baita prestazioek ere aurrerapauso handiak eman dituzte.

Aipatutako zerbitzu eta prestazio ekonomiko hauek jasotzeko sarrera giltza mendekotasun balorazioa (MBB) eginda edukitzea da, hau da, balorazioa eginda mendekotasun gradua eta maila ematen dutelako; eta horren arabera, prestazio eta zerbitzu ezberdinak egon daitezke. Behin balorazioa eginda, Udaleko gizarte zerbitzuen bidez eskaera egiten da, eta horretarako NAN fotokopia eta mediku txostena ekarri behar dira.

Lege honek eskaintzen dituen zerbitzu batzuk etxeko laguntza zerbitzua, eguneko, gaueko eta asteburuetako zentroak, erresidentziak... dira. Zerbitzu horiez gain, legeak prestazio ekonomikoak ere arautzen ditu: Zerbitzuari Loturiko Prestazio Ekonomikoa (ZLPE), Familia Ingurunean Zaintzeko Prestazio Ekonomikoa (FIZPE) eta Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (LPPE), baina laguntza hauen zenbatekoa aldatu egiten da graduaren eta mailaren arabera. ■

gazteria

Aste Santuko tailerrak



Gabonetako haurrentzako eskaintzaren arrakasta ikusirik, Aste Santurako udaletik berriro ere eskaintza egin dugu, eta esan behar da ezin garelako damutu. Oraingoan ere haur ugari bildu zen eta ekintzak oso ondo atera ziren. Bestalde, haurrentzako eskaintzaz gain, gazteentzako irteera ere egin zen Lekunberriko abentura parkera, eta irteera polita izan zela esan genezake.

Bestalde, gaztelekuaren funtzionamendua dela-eta bilerak egiten hasi gara, gazte gutxi joaten baita bertara eta hori aldatu nahi dugu. Horretarako, Aldundiko teknikari bat eta udaletxeko langilea herriko gazteekin elkartu dira, datorren urterako sistema aldatzeko asmoz.

Horrela bada, gazteen ekarpenekin eta lan egiteko gogoarekin Itsasondoko gazteriaren egoerari aldatu nahi dugu, herrian dagoen eskaintzaren erabilera egokia lortzeko asmoz. Eta herri bizitza sustatu nahian.

Lerro hauen bidez, herriko gazteak animatu nahi zaituztegu, herrian orokorrean egiten diren ekintzetan parte har dezazuten: festetako antolaketa bileretan, Herri Bizitza parte hartze prozesuan... Oso garrantzitsua baita zuek egotea, etorkizuna zareten aldetik. ■

San Juan sua

1.

Ospatzen al dituzu
San Juanak?

2.

Nola ospatzen
dituzu San Juanak?

3.

Zer iritzi duzu
herrian egiten den
ospakizunaz?

4.

Zer botako duzu
aurten sutara?



PILI OTEGI

1. Bai, ospatzen ditugu San Joanak.
2. Sua eta dantza ikuskizunarekin asko gozatzen dugu, berezia da, asko gustatzen zaigu.
3. Oso ondo dago, nik uste oso polita geratzen dela.
4. Gauza txar guztiak botako ditut, dudarik gabe.



BEGOÑA FERNANDEZ ETA HODEI HERRERO

1. Bai ospatzen ditugu.
2. San Juanak gogoko ditut eta plazara jaisten gara eta bertako ekintza ezberdinetan parte hartzen dugu.
3. Oso ondo dago, gustatzen zaigu.
4. Nire senarraren oposaketako apunteak botako nituzke sutara.



IKER ITURRIOZ, MATTIN BARANDIARAN, AGUSTIN GARMENDIA, EÑAUT BARANDIARAN, NAIARA VEGA, IMANOL AZURMENDI, AIORA ZURUTUZA ETA JOSU VEGA

1. Bai, joaten gara sua ikustera.
2. San Juan sua asko gustatzen zaigu, plazara joaten gara eta suaren inguruan ibiltzen gara korrika baina su aurrean dauden hesiak kenduko genituzke.
3. Oso ondo pasatzen dugu eta dantzan eta beste gauzetan ere parte hartzen dugu.
4. Matematiketako liburuak eta azteketak botako genituzke.

Trena, modernitatearen ikurra, ziur aski Industri Iraultzaren irudirik argiena. XIX. mendean, gizarte berri batek –gizarte industrialak, alegia– behar berri batzuk azaldu zituen: modernitateak bizkortasuna eskatzen zuen, bai hemendik hona mugitzeko, bai ondasunak urrutitik ekartzeko. Trenak bizkortasun behar hori bete zuen, eta duda gabe, garaiko garraioberdik garrantzitsuena bilakatu zen.

Trenari esker, beraz, distantziak txikiagoak bihurtu ziren: hirien arteko tartetak errazago betetzen ziren trenbideetatik. Azken finean, herria eta hiria, fabrika eta portua, barnealdea eta kostaldea lotu zituzten burdinbideek.

1857an Itsasondora helduko zen trenaren proiektua onartu zen. Ez zen lan erra-

za izan, eta heltze horrek nabarmen eraldatu zuen herria: etxe eta baserri batzuk lekuz aldatu behar izan zituzten trenbidea eraikitzeko. San Juan baseliza, gaur egun ezagutzen duguna, 1860an eraitsia eta berreraikia izan zen, trenaren lanak zirela eta. Herriaren inguruak ere pairatu zituen lanen ondorioak: mendietan zehar bidea egiteko 265 metroko tunela ireki zen, Legorreta eta Itsasondoren artekoa.

Itsasondoren kasuan, baina, pertsonak eta produktuak ez ezik, beste onura batzuk ere ekarri zituen trenbideak. Itsasondoren industriarik esanguratsuenak, arbelgintzak, lotura sendoa eduki zuen bere hasieran garraio berriaren etorrerarekiko.

Oso datu gutxi ditugun arren, argi dago zer edo zer gertatu zela XIX. men-

dearen erdialdean –trena heldu zen garaian–, arbel-lanari hasiera eman ziona. Izan ere, mendearen hasieran herri nekazaria zen Itsasondo, garia eta artoa produktu nagusiak zituena. Industriari zegokionez, ia ez zegoen halakorik, hiru errota, bi sutegi eta burdin tailer bat izan ezik. Are gehiago, lehendabiziko meatzelanak burdina eta berun meategietan hasi ziren, ez arbel meategietan.

Herri baserritarra, beraz, arbelarekiko loturarik ez zuena. Nola ulertu, orduan, 1860an lau arbelgin edo “pizarrero” agertzea herriko zergadun zerrendan? Nola otu zitzairen lau herritar horiei (José J. Sarasola, José Joaquín Múgica, Mateo Luluaga eta Francisco Echeverría) arbel lanetan hastea? Nori ikasi zioten arbela zer zen, zertarako balio zuen?

Tunela eta arbela (I)


XIX. mendearen bukaeran Itsasondo, inguruko herrien antzera, industrializazioaren gurpilean sartu zen.

Goierrri eskualdean metalaren arloa nagusitu bazen ere, gurean arbelgintza landu zen ehun urtetan.

Gaur egun, Ondartez enpresa gaia ikertzen ari da.

Hona hemen egindako lanaren lagin txiki bat.

Lau ataletan bildutako historiaren zati hau aiez ale argitaratuko dugu; hemen lehenengoa.



Itsasondo eta burdinbidea. Argazkiaren beheko partean, Sarasola enpresaren presa eta fabrika. Oria ibaiaren eskubiko ertzean egin zen trenbidea. Hortxe aurkitu zituzten Azubiako arbel meategiak, Echeverría, Luluaga y C.º-koek ustiatuko zituztenak.

Bada, antza, erantzun guztiak trenaren historian daude...

Itsasondoko arbela ez dago begi bistan, mendien azpian baizik. Trenaren lanak hasi arte, inork ez zekien, beraz, halakorik zegoenik. 1856an, Norteko Trenbidearen proiektua idatzi zenean, ikerketa geologikoak ere egin ziren; ikerketa horietan Itsasondoko arbela aipatzen da, lehenengo aldiz. Azubia paretik mendia zulatzen hasi zirenean, tunela irekitzeko, *Compañía de los Caminos de Hierro del Norte de España*ren langile frantsesek arbela ikusi eta ezagutu zuten. Itsasondotarren oroitzapenei kasu eginez gero, langile horiek meatzari lan egin ohi zuten Frantzian eta ondo ezagutzen zuten materiala. Euren esan zuten Itsasondoko arbela kalitate handikoa zela eta harri beltz horrek erabilera askotarako balio zuela.

Hala, frantsesen eskarmentuari esker, arbelaren ustiapena negozio ona izan zitekeela konturatu ziren *Compañía de los Caminos de Hierro del Norte* horretako langile batzuk. Handik gutxira, Francisco Echeverriak, José Joaquín Múgicak eta Mateo Luluagak *Echeverría, Luluaga y C.^a* enpresa sortu zuten, Azubia aldeko arbela ateratzeko eta produktu berriak ekoizteko asmoz. Mendearen bukaerako, 1890erako, Altzaga eta Itsasondoren arteko landa batzuk erosiak zituen; lurpean zegoen harri beltza azalarazteko lanak hasiak ziren.

Ez ziren bakarrak izan, ordea. *Echeverría, Luluaga y C.^a*-koek Azubian gale-riak zulatzen zituzten bitartean, Oria ibaiaren beste aldeko Larregi baserrian bizi zen Juan Martín Sarasolak erne begi-

ratzen zien aurrean zituen lanei. Berari ere, Azubikoa eredutzat hartuta, arbelgintza etorkizunerako lana izan zitekeela otu zitzaion. *Echeverría* enpresako bi langile kontratatu eta, bere ilobek kontaktzen dutenaren arabera, baserri inguruan hasi zen arbel bila; horrela sortu ziren Malkorre aldeko meategiak.

Enpresa berri hori, urteak igarota *Pizarrerías Sarasola* izango zena, 1876 urte inguruan hasi zen lanean, eta hamar urte beranduago, 1886an, San Juan basilizararen aldean ere egin zituen probak arbela ekoizteko. Mendearen bukaeran, 1894an, 20 langile zituen arbelgintzan, eta 1901ean lehenengo aldiz agertu zen Juan Martín Sarasola Itsasondoko zergadun zerrendan.

Gauzak horrela, Itsasondoko arbelgintza lanak bi enpresa horiek, *Echeverría, Luluaga y C.^a*-k eta *Juan Martín Sarasolak*, banatu zituzten: Echeverriakoak Azubian, Oriako eskubiko ertzean aritu ziren eta Sarasolatarrak, berriz, ezkerrekoan. Dokumentazioan beste izen batzuk agertzen badira ere –Ignacio Muguruza eta Francisco Jauregui, esaterako–, XX. mendearen hasieratik horietan izan ziren herriko enpresa nagusiak. Izan ere, Gipuzkoako beste leku askotan legez, bide espezializatu hartu zuten herriak industria garatzeko; kasu honetan, arbelgintzarena.

Zer egiten zuten enpresok mendietatik ateratako arbelarekin? Zertarako balio zuten lurpean aurkitutako harri beltz horrek? Gaur egun, erraz asmatzen dugu erabilerarik nagusienetako bat: eskola arbelak, bai, ikasgelatarako arbel handiak, baita umeek eramaten zituzten arbeltxoak ere. Arbelotan idazteko, klarionen orde arbelez egindako lapitzak, “pizarrilloak” zeritzenak, erabiltzen ziren, horiek ere Itsasondoko fabriketan egindakoak.

Beste erabilera batzuk, ostera, ezezagunagoak egiten zaizkigu; arbelaren propietate isolatzaileei lotuta daudenak, esate baterako. Izan ere, XX. mendeko 70eko hamarkadan plastikoaren erabilera zabaldu arte, arbelez egiten ziren plaka elektrikoak, oso isolatzaile ona baita arbela. Beroa mantentzeko ere oso baliagarria da, eta kafea eta kakaoa txigortzeko plakak egin ziren hasierako urteetan.

Hala, arbel fabrikak herriko aktibitate ekonomiko nagusietakoa bilakatu ziren; XIX. mendea bukatu zenean Itsasondo ez zen dagoeneko herri nekazaria. Artillerok tunela egiteko lehenengo kartutxoak jarri zutenean inork ezin zuten asmatu zer nolako aldatetak eragingo zituen trenak; ez eta bidaiariekin batera, lanbide eta bizibide berri batzuk ekarriko zituela ere. ■

Ainara Martínez Maitia

Itsasondoko tren-geltokia
Tren-geltokiak ere, beranduago eraikiko zutenak, lotura sendoa eduki zuen arbel lanekin, Sarasola enpresak bultzatu baitzuen eraikuntza.



Sarasola enpresaren lehortegiak (eskubitara) eta burdinbide-zubia.
1860.eko hamarkadan ailegatu zen trenea Itsasondora. Horrek nabarmen aldatuko zuen herria.

Maria Anjeles maistra: Bandera espainola kendu eta errege magoak ekarri zituena

Urkiko bizilagun baten ekimena izan zen eskola jarztearena. Ikusirik Urkin bazirela 30 haur eskolarik gabe zeudenak eta egunero Itsasondora joan beharra zeukatela eskolara, Urkiko bizilagun bat Itsasondoko Udaletxera joan zen laguntza eske. Udaletxean Tolosako Parditu Judizialera joateko esan zioten eskaera egin zezan. Hara joan eta lasterrera, Itsasondoko Udaletxera oharra iritsi zitzairen, Urkiko eskolarako material guztia prest jartzeko esanez, eskola martxan jar zitekeela eta. 1942. urtea izango zen gutxi gorabehera.

Hasieran Udalari zaila iruditzen zitzaion Urkin eskola ipintzea, garai hartan eskolak emateko inor ez baitzegoen Urkin. Baina, ikusirik apaiza nahikoa lasai zegoela, hura hasi zen eskolak ematen eta hasierako urteetan apaiza izan zen Urkiko eskolan maixu; eta hala segitu zuen 1950. urtera arte, Juan Manuel Etxeberrria zaldibitarrak alde egin zuen arte. Haren ondoren hasi ziren Urkira maistrak iristen, eta ez gutxi, gainera. Bakoitzak kurtso bat edo askoz gehiago ez zituen egiten, salbuespen batzuk izan ezik. Hori, Urkiko haurrentzat ez zen oso atsegina, horrenbesteko maistra-dantzarekin ezin baitzuten gauza handirik ikasi.



Urkiko eskola

Maria Anjeles maistraren hasierako garai

Donostian bizi da gaur egun Maria Anjeles Saenz Rekalde. Bera da Urkiko eskolan ikasturterik gehien egindako maistrakoa bat, gainerakoek laster alde egiten baitzuten handik. Berak lau ikasturte egin zituen. Maria Jesus Lasa Gurutzearrekoaren lagundenez, eta bera nire izeba, hirurok Maria Jesusen etxean elkartu gara Donostian, Urkiko Eskolako garai haiek gogora ekartzeko.



Nola iritsi zinen Urkiko Eskolara, Maria Anjeles?

Urkiko eskola Espainiako Hezkuntza Ministeritzaren baitan zegoen, eta ni ere bai. Oposizioak egin eta lortu nuen Itsasondoko Urkirako plaza. Ni han eskolak ematen hasi aurretik, aurreko maistraren azken egunetan Urkiko eskolara joan nintzen Urkiko haurrei nire burua aurkeztera, eta hurrengo urtean ni izango nindutela maistra esatera. Orduan ikusi nuen han zegoen maistrak "viva España" kantatuz bukatu zuela klasea, eta Espainiako bandera zegoela zintzilikaturik eskolan. Ia kolorerik gabeko tela puska zahar bat zen. Hurrengo ikasturtearen hasieran joan nintzenez, garbi neukan ez genuela horrelako kantuak kantatuko eta bandera zintzilikatzeko asmorik ere ez nuen eraman. Baina ikasleetako batek galdera egin zidan: "bandera jarri al dezakegu?" Eta nik: "nahi duzuen bezala". Ikasleek orduan ez zuten banderarik jarri, eta horrela batere konturatu gabe, eta aparteko garrantzirik eman gabe hortxe bukatu zen Urkiko eskolan bandera espainola zintzilikatzeko ohitura. Nik ez bainuen ikusten beharrik, eskolan horrelako ezer jartzeko ezta kantatzeko beharrik ere. Eskola guno pedagogikoa zen niretzat, ez besterik.

Nola zegoen antolatua eskola?

Sei urtetik hamabi urtera bitarteko haurrekin hasi nintzen. Ikusirik gaztelaniaz ez zirela batere ondo moldatzen (eta hori zen garai hartako gure helburua, haurrek gaztelaniaz ikastea), gurasoei meza ondoren egindako bilera txiki batean esan nien ahal bazuten, haurrak bidaltzeko eskolara lau urterekin. Hasiera hartan 26-27 haur nituen, neska eta mutil. Beraz, Urkiko eskola izan zen garai hartan, inguru honetako eskola mixto bakarra. Neska eta mutil, denak nahasian ibiltzen ziren.

Eta hezkuntza-programari dagokionez?

Garai hartan helburua zen haurrek idazten eta irakurtzen ikastea, baina gaztelaniaz. Inspektoreek agintzen ziguten guri. Eta eurek zeharo galarazten ziguten eskoletan euskaraz egitea. Baina, ez zen hain erraza. Nik esan nion inspektoreari Urkira iritsi berritan: "en 5 años soy la cuarta maestra, y estos niños en 5 años no hablan ni entienden nada en castellano. Yo les pregunto: ¿qué es la tierra? La tierra es una bola que da vueltas alrededor de nosotros. ¿qué significa dar vueltas? Y nadie sabe responder". Horrela zegoen egoera ni iritsi nintzenez, horregatik nik hasieratik izan nuen asmoa zera izan zen: haur horiei gaztelaniaz irakurri eta idazten erakustea, baina euskaratik abiatuta. Haur haiek ez zuten hiria ezagutzen, sekula ez zuten trenik hartu, lurrari eta baserriari lotuak bizi ziren, beraz, nik hortik abiatuta erakutsi behar nien dena. Eta euskaratik gaztelaniara. Horregatik Urkiara joan aurretik Donostian bertan nire euskara pixka bat hobetzen aritu nintzen MARIA DOLORES AGIRREren klaseetara joanez, neurea atzendu

samarra bainean. Izan ere, nire ama euskalduna zen, baina aita ez, eta etxean izan genituen zaintzaile denak ere erdal-dunak izan ziren.

Inspektorearen begirada zorrotzaren pean aritzen zineten orduan eskolak ematen, ezta?

Bai, bera zen gure lana guztiz kontrolatzen zuena. Bisitak egiten zizkiguten maiz, eta Urkin lehen kurtsoa amaitu nuenean ere etorri zen inspektorea bisitan. Harrituta geratu zen Urkiko haurrek egin zuten aurrerapenarekin. *“¿Esto es lo que han hecho los niños de Urkia?”* galdetu zidan. Eta gero betiko galdera: *“¿tú les hablarás en castellano verdad?”* Eta nik, hasieran agian ez nion egia esango, baina orduan ia ausartu egin nintzen egia esatera: “nik majisterio ikasi nuenean esaten zidaten haurrak ezagutzen zutenetik ezezagun zutenera eraman behar zirela, zekitenetik abiatu eta ez zekiten hartara. Eta nik hori egin dut haur hauekin; euskaraz hasi naiz eta gaztelaniara eraman ditut”. Baserriko gaiak erabiltzen nituen, haur haiek ezagutzen zituzten gaiak, gero beste alor batzuetara salto egiteko. Eta euskaratik gaztelaniara egiten nuen salto, eta horrela lortu zuten askok gaztelaniaz ikastea. Bestalde, esan behar dut, Urkin bertan, neuk ere asko ikasi nuela haur haiengan-dik. Niretzat zuhaitzen izenak esate baterako oso arrotzak ziren. Adibidez, ez nekien urkia zer zen. Hiztegian begiratu eta ABEDUL agertzen zen, baina ez nintzen gai arbola guztien artean urkia zein zen bereizteko, eta Urkiko haurrekin horrelako gai asko ikasi nituen.

Lotura horrengatik, hain zuzen ere, askotan zaila zen haurrak eskolara eraman araztea, ezta?

Batez ere ikaslerik zaharrenak, eta udaberri-ritik aurrera, etxean lan asko izaten zuten

eta ez ziren eskolara egunero joaten. Inspektoreak esaten zidan, derrigorrezkoa zutela eskolara joatea, orduan nik, apaizari kontsulta egin eta gero, zera erabaki nuen: goizean goizago klaseak hasi eta segidan emanez, arratsaldeko lehen orduetarako klaseak amaitzea eta hala haurrak arratsalderako libre izaten ziren, etxean lan egin zezaten.

Zer moduz egokitu zinen Urkira, Donostiatik joanda?

Banekien aste osoa han pasa beharra neukala, ezin nintzela joan-etorrian ibili, besteak beste errepiderik ere ez zegoe-lako. Baina, hasieran gogorra egin zitzaidan. Garbitasun kontuengatik batez ere... ez zegoen dutxarik!!! Portzelanazko palankana handiak izaten ziren dutxaren ordezkioak eta harekin moldatu behar izaten nuen. Gero etxera joandakoan orduak eta orduak pasatzen nituen baineran sartuta.

Zuk eraman zenituen Urkiko haurrak lehen aldiz Donostia, eta hondartzara.

Nire ahizparen laguntzarekin egin nuen, bai. Haur haiek ez zuten hiria ezagutzen, ez zekiten trena zer zen, hondartza zer zen... Ahizpak esan zidan lagunduko zidala eta hala Urkitik haurrak hartu eta trenez Donostian agertu ginen. Gogoratzen dut ze beldurra zekaten kalea gurutzatzen hasita... kotxe asko baitzebilen Donostian (ez gaur adina, baina) eta Urkiko haurrak kieta, ez ziren ausartzen kalea gurutzatzera ere... Gero, Donostiako jardinetara sartzen ziren belardiak zirelakoan, eta kalean zebiltzan usoak ere harrapatu zituen bakarren batek.

Nik nahi nuen haur haiek hiria ezagutzea, hondartza ikustea eta itsasoa... hala eraman genituen Kontxako hondartzara.



Urkiko umeak aurreneko aldiz Kontxan

Urkiko eskolako maistrak

- **Mertxe. Ordizia.** Bera izan zen lehena.
- **Irene Gonzalez. Valladolid.**
- **Felisa Elejalde. Nafarroa.**
- **Clarita. Nafarroa.**
- **Maria Anjeles Saenz Rekalde. Donostia.**
Gure artikuluko protagonista. (1958-1962)
- **Marcelina. Zamora.** Bere ahizparekin etorri zen ez zelako ausartzen Urkin bakarrik bizitzera.
- **Mari Carmen Rodriguez.** Ordura arte maistra guztiek Gurutzeurre etxean hartzen zuten ostatu, baina honek bere etxe propioa behar zuela eta urkitar guztien artean prestatu zioten etxebizitza eskolaren gaineko solairuan.
- **Benedicta. Soria.** Hau Idoiagan bizi zen, Gurutzeurren ordurako ez zelako inor bizi eta Idoiagan hartzen zuen ostatua; egunero jaisten zen handik Urkira.
- **Maite Olazabal. Itsasondo.** Azkeneko hilabete gutxi batzuetan.

Itxiera: 1968-69 inguruan. Urkiko baserri asko garai hartarako hustu egin baitziren.



Sekulako inpresioa egin zien! Uretan ere ibili ziren... San Telmo Museoa bisitatu genuen, Akuarioa ere bai.

Zuk egin zenituen bestelako ahalegin batzuk ere Urkiko haurrekin. Esate baterako beste eskola batzuetakoekin trukea.

Bai, Aldabako haurrekin eskutitz trukea egin genuen. Eskutitzak egiten ikasteko, eta idazteko ohitura hartzeko, Aldabako haurrekin kartak elkartrukatzeko genituen. Eta behin, haiek ezagutzeko Izaskunera txangoa egin genuen. Huraxe izan zen hain zuzen ere, Urkiko haurrek telebista ikusi zuten lehen eguna, Izaskungo jatetxean izan zen. Kartaz elkar ezagutzen genituen haurrak aurrez aurre ikusteko eguna izan zen, eta uste dut oraindik ere gaur egun, batzu-batzuk gordetzen dutela laguntasuna.

Alderantziz ere egin genuen beste behin: beste herri bateko haurrak, ez naiz gogoratzen nongoak ziren, Urkira bisitan etorri zitzaizkigun. Ez dut sekula



"Don Martin" eta Mari Angeles Urkian

ahaztuko. Urkiko mutilak, kanpotarrak zirela eta euren herriaz jabetuko zirela pentsatuta, harri tiraka hasi zitzaizkien... Ni lotsa-lotsa eginda egon nintzen, haurrei esanez, horrelakorik ez egiteko, lagunak izan behar zutela e.a.

Urkin maistra izan zinen urte haieran zer egin zitzaizun gogorrena?

Ba, errepiderik gabe eta urik gabe bizi behar izatea oso zaila iruditzen zitzaidan, eta ahalegin bat edo beste ere egin nuen auzo hark laguntza pixka bat jaso zezan. Donostian ezagutzen nuen monja baten bitartez Diputazioko presidentearengana eta gobernadore zibilarengana iritsi nintzen. Oso lotsatia nintzen gauza haientarako, baina pentsatu nuen zerbait egin beharra neukala. Gobernadore zibilak hartu ninduen bere bulegoan, eta oso ondo hartu ere. Orduan aprobetxatu egin nuen eta arazo eta gabezia guzti-guztiak kontatu nizkion. Nola Urkin ez zeukaten urik, horrek garbitasunerako eta osasunerako sortzen zituen arazoekin, nola ez zeukaten errepiderik, eta nola zegoen eskola, berritu baten premia handian. Gobernadore zibilak esan zidan bere eskuetan zegoen guztia egingo zuela, besteak beste, bere gurasoak ere maisu-maistrak zirelako.

Hurrena Diputazioara joan nintzen, bertako presidentearengana. Hura medikua zen lanbidez. Hari ere eman nion egoeraren berri zehatz-mehatz eta agindu zidan ekipo bat bidaliko zuela egora nolakoa zen aztertzerako. Baita bidali ere, joan ziren eta begiratu zuten guztia eta gutxien gutxienez, eskoan lehio bat gehiago ateratzea lortu nuen. Hala, negu garaian argi gehixeago geneukan lanean aritzeko, ez baitzen argirik garai hartan eskolan, eta bereziki neguan, garaiz iluntzen zuenean oso ilun gelditzen zen eskola. Errepidearena han gelditu zen...

Memoria de una actividad

Los Reyes Magos y el Frente

VISITA A LA ESCUELA DE ISASONDO

Es la anécdota más simpática ocurrida el día 6 de enero al Frente de Juventudes.

La maestra del barrio de Urquina (Isasondo) solicitó al delegado provincial del Frente de Juventudes el posible otorgamiento de unos juguetes para sus alumnos, muchachos todos ellos muy necesitados.

A las nueve de la mañana del día 6 de enero, el jeep del Frente de Juventudes llevado a Urquina a la maestra maestra y su hermana, que acompañados por el jefe de actividades de la Organización Juvenil Española, se trasladaron a aquella localidad para repartir un gran cajón de juguetes y golosinas a los 22 niños y niñas de aquella escuela.

Desde el primer momento se intentó con el jeep llegar lo más cerca posible a esta lugar de difícil comunicación que es la escuela de Urquina. El primer tramo del trayecto se hizo con normalidad, llegando hasta una 30 metros encima de la cantara, considerando que una vez superada esta pendiente el camino no ofrecería mayores dificultades. Se prosiguió el camino y ante el mal estado del mismo el jeep pero ya establecido, se adelantó fuera de la carretera hacia el interior, quedando el coche con las ruedas en el aire, apoyado sobre un pequeño pino que impidió la precipitación del vehículo por una altura superior a los 100 metros. El estado tan grande y con gran preocupación se consiguió equilibrar el vehículo bajando los buches sin que pudiéramos salir las personas por el excesivo movimiento que ocasionábamos al coche. Fueron momentos de gran peligro, ya que el menor movimiento nos hubiera lanzado al vacío. Pasados estos apuros y sujetando el coche para evitar su caída conseguimos organizar tres grupos, el primero de ellos compuesto por la maestra y los niños de la escuela que habían bajado a esperarnos fue a pedir ayuda a Isasondo, el segundo compuesto por la hermana de la maestra y el jefe de actividades de la Organización Juvenil Española, acompañados de un muchacho que acudió rápidamente a prestar ayuda, se encaminó al barrio de Urquina para repartir los juguetes y por último, el conductor quedó vigilando el jeep esperando dos horas bajo la lluvia.

Por fin y tras más peripecias llegamos a Urquina. Todos los hombres y niños que salían en aquel instante de casa se vieron sorprendidos por nuestra presencia, ignorando lo ocurrido comentaban como por primer vez había llegado a este barrio guipuzcuano un camión de los Reyes Magos portador de juguetes y regalos. A continuación en el pueblo pero bien cuando local de la escuela repartimos los juguetes a los niños de Urquina.

Mientras estábamos con los niños en la escuela, sus padres y hermanitas, como un solo hombre se unieron...

COLABORACIONES EN LA CAHALGATA DE REYES

La Delegación Provincial de Juventudes de Guipúzcoa quiere agradecer públicamente la colaboración prestada por el Excmo. señor gobernador por el Excmo. señor gobernador civil de la provincia, Gobierno Militar, Jefatura Provincial del Movimiento, Diputación Provincial, Ayuntamiento de San Sebastián, y Delegación Provincial de Sindicatos, que con sus importantes gestiones han ayudado a esta obra del Frente de Juventudes.

Nuestro agradecimiento también a LA VOZ DE ESPAÑA, "El Diario Vasco", "Unidad", La Voz de Guipúzcoa, Radio Nacional de España en San Sebastián y Radio San Sebastián por la colaboración prestada a esta actividad.

Destacamos la participación de fuerzas de la Guardia Civil, Policía Armada y de Tráfico y Guardia Municipal que nos acompañaron durante el trayecto y agradecemos también la presencia de los componentes del Club Vespa y de los miembros de la Hipódromo de Loyola.

Especial agradecimiento merece el comercio de San Sebastián que por primera vez en la historia de esta cabalgata ha colaborado con nosotros de forma desinteresada y cordial.

VISITAS DE LOS SANTOS REYES MAGOS

Como otros años, el Frente de Juventudes se trasladó a la Prisión Provincial de Martutene, Hospital Provincial de Anaita, Hogar de Auxilio Social y Banco de España, donde hicieron pasar un agradable rato a los componentes de estas instituciones.

EL FRONTE DE JUVENTUDES EN ANOETA

También los Reyes Magos, visitaron esta institución deportiva del Frente de Juventudes y obsequiaron a los hijos de los socios con golosinas y regalos.



1960. urtean Errege Magoen etorrerari buruz argitaratutako artikuloa.

Bukatzeko kontatuko al diguzu, nola lortu zenuen Errege Magoak Urkira eramatea? Anekdotak polita da hori eta...

Ba, Urkiko haurrek euren eskolan sekula ez zuten jaso Errege Magoen oparirik. Eta komeni zen jostailuren batzuk edukitzea, batez ere, eguraldi txarra egiten zuenerako eta.... Nik noiz edo noiz etxetik eramaten nizkien opariak, beste batzuei atzera geratutakoak eta horrela... eta Urkiko haurrek noski, oso gustura hartzen zituzten. Baina, urte batean bururatu zitzaidan FALANGEKOEI karta bat idaztea: *"Les escribo porque soy maestra de un barrio, Urkia, en Itsasondo. No hay carretera y los niños de la escuela no saben lo que son los reyes, nunca han recibido ningún regalo de reyes. Yo creo que deberían hacer algo"*. Eta erantzuna: *"De acuerdo, iremos a Itsasondo"*. Ez naiz ondo gogoratzen zein egun zen, uste dut errege ondorengo eguna zela. Jeep batean iritsi ziren Itsasondora bere jostailuekin. Urkitik astoa eta mandoa hartuta Malkor barrenean zain zituzten opariak kotxetik hartu eta asto gainean gora eramateko. Baina, falangeko horiek, pentsatu zuten, euren kotxearekin igo zitekeela gorago. Baina, bai zera!!! Ia-ia amilduan geratu ginen falangeko horiek eta ni kotxe barruan ginela. Orduan, Urkiko gizon guztiak etorri, auzoko polea handi bat hartu, kotxeri erantsi eta hala atera zuten arriskutik. Baina, ia-ia erori ginen Oria ibairaino!

Herri guztia aztoraturik ibili zen ondoren...garai hartako prentsan ere argitaratu zuten notizia. Baina, azkenean iritsi ziren opariak Urkira eta ikustekoa zen haur haien aurpegia opariak deskubritzen zituzten eran... Gogoan dut neskatok batek panpina handi bat ikusi zuenean jarri zuen aurpegia, ez zait sekula ahaztuko!■

Urkiko eskolako ikasleak

ANA MARI ARZA, Saletxeberrikoa

Sei urterekin hasi eta hamahirura arte aritu nintzen eskolan. Hasiera oso gogorra izan zen, den dena gaztelaniaz egin behar izaten genuelako, eta guk ez genekien batere. Zigorrekin ere gogoratzen naiz. Niri pilotan ibiltzea asko gustatzen zitzaidan eta maistrak ikusten zizkidanean "pilotari-eskuak" zigortu egiten ninduen. Ni egonda nago aste-bete "sin recreo"!

Halere, esan behar dut ikasi, ikasi genuela. Niri irakurtzea asko gustatzen zitzaidan, eta nik Urkin ikasitakoa daukat, bai irakurtzen eta bai idazten. Maria Anjelesekin gogoratzen naiz, bai. Ona zen maestra, baina zuzena oso. Asko akordatzen naiz berarekin egiten genituen antzerkiez, Gabonetan eta izaten ziren...

Asko gogoratzen naiz mendira egiten genituen irtenaldiez: Usurbera eta Murumendira askotan joaten ginen eta Altagara ere bai. Txango haietatik gehien gogoratzen dudana da limonada botaila txikiak. Haiak bai izaten genituela gustuko!

GERMAN OTEGI, Olatekoa

Sei-zazpi urterekin hasi eta hamalaura arte ibili nintzen Urkiko eskolan, baina askotan kale egiten nuen, etxean lana izaten genuelako. Gero, bolada batean gau-eskolan ere ibili nintzen, eta azkenean zertifikatua ateratzera iritsi nintzen.

Gogoan daukat, eskola-etxearen bueltan nola ibiltzen ginen jolasean. "Soldaduska" deitzen genion jolasa geneukan, makila hartu eskutan eta

denok korrika batean ibiltzen ginen. Pilotan ere asko...

Garai hartako zigorrak ere ezin zaizkit ahaztu: reglarekin behatz puntetan jotzen gintuzten, esku banatan liburuak hartu eta belauniko jarrarazi... Izan ere, gu, eskolara gutxi joaten ginenok, ez ginen iristen beste batzuen mailara lezioa hartzerako garaian, eta zigor asko jasotzen genituen.

MARIA JESUS LASA, Gurutzeurrekoa

Maria Anjeles maistraren garaiko eskola oso gogoan daukat. Nik bederatzi urte nituen bera etorri zenean eta ez nekien irakurtzen... baina, nola bera gure etxean egoten zen, asko lagundu zidan. Hasieran ez nuen ezer ulertzen, baina berak esaten zidan, irakurri berriz eta ulertuko duzu. Eta hala berak erakutsi zidan irakurketari gustua hartzen. Berak erakutsi zidan josten eta laboreak egiten ere.

Niri oso interesgarria iruditzen zait berak zeukan klaseak emateko estiloa; izan ere, askotan klasetik kanpora eramaten gintuen eta kanpoan ematen zizkigun klaseak. Gure begiekin ikus gengan nola gertatzen zen adibidez, polinizazioa. Erlea lorera nola inguratzen zen eta polinizazioa egiten zuen e.a... Eskulanak ere oso bereziak egiten genituen berarekin. Material guztia berak ekartzen zigun Donostiako Ramos liburudendatik eta sekulako lanak egiten genituen eskolan, eta gero erakusketa moduko bat osatzen genuen gurasoek eta ikus zezaten.■



Urkiko umeak antzerkia preparamen

6. Ibilbidea

Itsasondo-Murumendi

Iraupena: 2 ordu eta erdi

Ibilbidea:


Itsasondo- Urkia: 45'

Urkia-Leizia: 45'

Leizia-Arrapaitz iturria: 40'

Arrapaitz iturria-

Murumendi: 20'



Deskribapena: Itsasondoko plazatik irten eta Iturbe eta Iturburu base-rietara abiatuko gara. Hormigoizko pista honi jarraitu eta Malkorre ingurura iristean, minetako sarrerekin egingo dugu topo. Hemen, gorantz doan bidea hautatu eta basoan sartuko gara, basotik jarraituko dugu, Bekoetxeke errekarerekin topo egin arte. Orain arteko ibilaldian PR GI-53 arrasto zuri-horiak ikusi ahal izan ditugu. Eurek zeharkatu gabe gorantz joko dugu, Ermintzatik datorren pistara ailegatu arte. Bidegurutze honetan eskumara hartu eta Urkiara iritsiko gara. Ermitaren atzealdean hemendik aurrera segitu beharreko seinalea dago. Bidea Murumendiko tontorreraino ongi markatuta dagoenez, honi jarraitzea besterik ez dugu. Tontorrera iristean, paisaia paregabea izango dugu aurrean: Aitzgorri, Izarraitz, Ernio, Aralar... Gozatu! ■





02
Malkorre



03
Urkiko errota



04 Urkigoena-Urkigoenazpi



05
Urkia



06
PR-GI-54



07
Murumendi begi bistan



08
Murumendiko bidean



09 Arrapaitz iturria



10
Murumendiko tontorra

Atal berri honetan, informatikari buruzko kontuk izango dituzue aurrerantzean, Axier Bazagari esker: Internet, jokoak, programak... Lehenengoa, hain modan dauden sare sozialei buruzkoa izango da. Gai hauen inguruan, inork zalantza edo proposamenik balu, e-mailez (djashbazaga@hotmail.com) Axierrekin harremanetan jartzea besterik ez du.

Sare sozialak, moda bat?



Dagoeneko denok dakigu zer diren sare sozialak; baina, jende askok ez daki sare hauek zer abantaila edo arazo ekar ditzaketen erabiltzaileentzat.

Hasteko, sare soziala aspalditik zeuden mezulari sistema (e-mailak) eta chat-en arteko eboluzio eta fusioa da. Bertan, erabiltzaileak bere kontaktuekin denbora errealean hitz egin edota mezuak bidal ditzake. Horrez gain, beraien egunkari pribatu bezala erabil dezakete.

Aspaldi, bakoitzak bere egunkari fisikoa (koaderno) izaten zuen, bertan bere gertakariak idazteko. Badirudi ohi-tura hori galdu egin dela, eta gehienbat gazteek, koaderno alde batera utzi eta Internet erabiltzen dute beraien egunkaria idazteko. Baina, ez bakarrik hori: lehen pribatuak ziren gertakariak pribatu izateari utzi eta publiko izatera igaro dira.

Ondorioz, beti egongo da eztabaida sare sozialen erabilera ona edo txarra ote den. Arazoa ez dago sare sozialetan, jendeak erabiltzen duen moduan baizik. Beti ere pentsatu beharra dago bertan idazten den guztia jende askok irakur dezakeela, beraz, norbere ardura izango dira eduki ditzakeen erantzunak edo kritikak.

Goazen abantailak eta desabantailak aztertzeraz:

Abantailak:

Aspaldian ikusi ez dituzun lagunak bertan kontaktuan edukitzea. Adibidez, eskolako lagunak, udalekuetako lagunak, oporretan ezagututako lagunak...

Lagunekin jolasteko aukera ematen du. Sare sozialek on-line jokoak dituzte, bertan jolastu ahal izateko modu azkar batean bakoitza bere eserlekutik mugitu gabe.

Zure gustu berberak dituen jendea ezagutzea, bai musika, zinea edo beste arloetakoa.

Interneteko komunitate batean parte hartzea. Adibidez, Grea Peace-ek daukan txokoa sartu, edo Michel Jacksonen fan txokoa sartu... Esan beharra dago sare sozialak txoko bereziak dituztela arlo askotakoak, eta bertan biltzen dira musika talde konkretuak diren fanak, ONG baten alde dauden erabiltzaileak, futbol talde baten jarraitzaileak...

Komunikazio azkarra eta zuzena du, eta bertan bideoak, argazkiak, web orriak... zintzilikatzeko aukera ematen du.

Sare sozialak asko erabiltzen dira hasiberriak diren musika taldeentzako ere. Horrela, euren burua ezagutzera ematen dute. Adibide on bat da **www.myspace.com** sare soziala. Bertan, musika taldeek maketak, bideoak eta abar zintzilikatzen dituzte.

Desabantailak:

Kontu handia izan behar da jartzen diren gauzeekin. Beti egongo da norbait zure erabakiarekin ados ez dagoena. Kritikak (onak nahiz txarrak) onartu egin beharko dira.

Kontuz ibili behar da ezagutzen ez den jendearekin, bere identitatea ez baita guztiz ezagutzen. Hau da, pertsona horri buruz informazio faltsua jaso dezakegu. Beti ere pentsatu beharra dago ez dugula ezagutzen ordenagailuaren aurrean dagoen beste pertsona.

Pribatuan edo sare sozialean zenuen lagun talde txiki batean konpartitutako informazioa bat-batean publiko bihurtu daiteke.

Gurasoek seme-alabengatik izan dezaketen kezka. Beti izango dute kezka hori, ez baitituzte ezagutzen semeak edo alabak dituen kontaktuak.

Horiexek dira gehienbat nabarmen ikusten diren abantailak eta desabantailak. Interneten dagoen erreminta bat gehiago da, eta gustatu edo ez, geroz eta gehiago erabiltzen da.

Musika taldeek beraien lanak erakusteko erabiltzen dute; lehen aipatutako myspace da gehien erabiltzen dena. Baina, kontsumitzen ditugun marka askok ere txokoak sortzen dituzte sare sozialetan; esate baterako, Coca Colak ere bere txokoa du **www.facebook.com** sare sozialean. Esan beharra dago sare sozial hori dela gaur egun gehien erabiltzen dena.

Interneten komunikazio sistemak asko eboluzionatu du: e-mailetatik chat-etara, chat-etatik messenger-era (hotmail/msn da famatuena), messenger-etik blogetara (blogak dira Interneten sortutako egunkari edo artikuloak); gero, blogetatik fotoletara (aurreneko sare sozialak, bertan jendeak argazkiak zintzilikatu eta euren erabakiak edo gertakizunak jartzeko zituen), eta azkenik, fotoletatik sare sozialetera (facebook, tuenti...).

Bukatzeko, sare sozialak komunikazio mundu bat da, etengabe garatzen doana. Beti azaltzen dira gauza berriak ikusteko eta ikusteko. Eta, gogoan izan behar da, sare sozialak berez ez direla txarrak; arriskua jendeak erabiltzen duen moduan dago.

Gogoan izan, euskarazko sare sozialek ere baditugula. Hala nola, **www.zutagu.net** da aurreneko sare sozial euskalduna.

Animatu, probatu, jendea ezagutu eta zintzo ibili, baina beti ere zu zeu izan sare sozialean. ■

djashbazaga@hotmail.com

Maiatzak 8, Eskola Txikien Eguna

Aurten eskola txikien eguna antolatzeko txanda Zerainena zen, eta ospatzeko gonbidapen berezi bat jaso genuen: Pirritx, Porrotx eta Marimototsek beraien "Irrien lagunak" DVDaren grabaketan parte hartzeko deia egin ziguten.

Nola ez, haur eta gurasoak oso pozik jarri ginen; txikienak urduri ere esango nuke, hainbestekoa zen gure pailazoak ikusteko gogoia eta.

Horrela, maiatzaren 8an, Urnietara bidean jarri ginen, bertan baitzen grabaketa egitekoa. Bertan ziren Zerain, Gabiri, Olaberri eta beste eskola txikietako lagunak ere. Bertara iritsi eta ordu eta erdi inguru egon ginen abesti eta dantzak grabatzen pailazo, musikari, dantzari eta beste eskola txikietako hurrekin; hori bai abilitadea batzuen! Eta hainbeste dantza eta jira gosetu ere bai, eta gustura jan genituen Urnietako plazan Zeraingo lagunak prestatutako bokatak eta gainerakoak.

Arratsaldean berriz ere dantza eta kanta eta jira eta buelta. Guk ederki pasatu genuen grabaketan eta DVDa ere ederki geratuko zela espero dugu; gogoia eta asmoa gutxienez jarri genituen. Gogoratu, Itsasondoko haurrak laster aterako den Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Irrien lagunak" DVDan izango gara, ea ezagutzen gaituzuen! ■

Maddi, Ainhoa eta Garazi Porrotxekin.

Eskolako haurrak Urnietako plazan.



Eskolako haurrak Marimototxekin.



Urnietako plazan bazkaltzen.



DVDaren grabaketan parte hartu dutenak.

Herri Urrats



Maiatzaren 9a, urtero bezala Herri Urrats-en txanda, eta ezin huts egin. Itsasondoko lagunak ez genion huts egin hitzorduari eta autobusa beteta abiatu ginen Itsasondotik. Giroak ez zuen askorik laguntzen, hotza eta euri langarra izan genituen, eta horrek aurreko urteetan baina jende gutxiago elkartzea ekarri zuen. Senpereko lakuaren inguruan ibilaldia egin eta bazkaltzera prestatu ginenerako eguraldia lagun genuen, eguzki pixka bat ikusteko aukera ere izan genuen. Nola ez, beste behin ere bazkaria primerakoa zegoen, eta bazkalostea, berriz, Kuxkuxtukoek alaiturik digestioa egiteko paregabea. Pentsa, lainoak ere uxatu genituen eta. Bazkaloste luzearen ondoren, dena jaso eta itzuleran pentsatzen has-teko unea iritsi zen. Lagunak agurtu eta datorren urtean ere bertan izango garelako promesa egin genien; bitartean, "izan untsa".

Lotsatiri omenaldia, maiatzak 2



Gurutz Sarasola "Lotsati"ri omenaldia egin zitzaion maiatzaren 2an. Senideek oroimen meza izan zuten eta Itsasondoko hilerrian oroigarria eskaini zioten. Ondoren, "Sarasolaenean" "Lotsati"ren omenezko plaka agertu zuten. Txistuz lagundutako dantzarien agurrek eta Mikel Mendizabalek kantatutako bertsoek omenaldi xumea ireki zuten. Segidan, senide eta udal ordezkariak hitza hartu zuten, baita Alvaro Rabelli idazleak ere. Amaitzeko, Udalak hamaiketako goxoa eskaini zuen Arbel-aitz elkarte-an; eta oroimen ekitaldia amaitzeko, bazkari ederra izan zen Nautico jatetxean. Udalekoentzat, herritarrentzat eta senideentzat Gurutz Sarasola "Lotsati"ren oroimena eta lana berreskuratzea oso gustuko eginbeharra izan delakoan gaude.



Mendi irteera



Itsasondo 2.0 aldizkarian azaltzen diren ibilbideak herritarrei egiteko aukera ematea eta kirol pixka bat eginez ingurunea ezagutzeko interesgarri izan zitekeela pentsatu genuen. Horrela, apirilaren 23an Lizardiko bira egin genuen. Lagun talde ederra elkartu ginen, eta giro paregabea lagun, Itsasondotik Berostegira abiatu ginen, handik gora Lizardira, eta bertarik Urkiara. Han atsedenaldia egin eta hamaiketako egin ahal izan genuen. Zailena egina zegoen, eta indarrak berreskuraturik, Itsasondora jaitsi ginen. Hiru orduko ibilaldi polita burutu genuen.

Maiatzaren 23an, bigarren ibilaldia egin asmoz elkartu ginen. Eguraldi paregabea egiten zuen, baita hondartzara joateko ere, eta horrek gure taldekide kopurua murriztu zuen; baina, elkartutakoak gogoz abiatu ginen.

Altzagaraterako igoerarekin hasi genuena ibilaldia, handik Baliarrain genuen hurrengo jomuga, leku aproposa hamaiketako egiteko. Bertatik Legorretara jaitsi eta Itsasondorako bidea ere bizkor-bizkor egin genuen. Azkeneko masailak gorrituak genituela ezin ukatu.

Uda partean jendeak agenda beterik izaten duenez eta egun freskoagoen zain, ibilbideak uda ondoren berreskuratzea pentsatu dugu. Izango duzue gure berri!

Oriora irteera



Erainaren 5ean, larunbata, goizeko 5etan egin genuen hitzordua Itsasondoko plazan. Mendizale taldetxoak elkartu ginen, eta behe lainoaren freskurak lagundurik, abian jarri ginen. Egun ederra genuen aurrean. Kilometro batzuk oinetan genituela Zelatun bistaratu zitzaigun, aldapa gogor xamarra aurrean, baina hamaiketako ederraren desioan hankak arinago joaten dira. Merezitako deskantsua egin ondoren, aurrera jarraitzeko unea iritsi zen; eguzkia berotzen hasi zen, zerua erabat urdin zegoen, baina, brisa lagun genuen. Orio ez zegoen urruti, Itsaso usaina sumatzen genuen, aurrera neska mutilak.

Kostata baina iritsi ginen. Itsasondoko lagunak zain genituen, eta bigarren etapa bat hasten zen orduan: Orioko kaleetan zehar paseotxoak, basoerdiren bat edo beste hartu eta ondo irabazitako bazkaria; eta arratsaldean...

Haurreskolako murala



Azkenaldian Itsasondoko haurreskolara gerturatu bazarete, konturatu zineten kanpoko patiotxoan aldaketa nabaria gertatu dela. Lehenago horma soil eta iluna zegoen lekuan margo koloretsu eta ederra dago orain, eta nola ez, umeak poz pozik, begiak parez pare irekita bertako animaliei eta paisaiei so.

Eta, hori guztia nola sortu da? Bada, Jorge Gorrindok, egileak, kontutako digu ideia nola sortu zen.

“Egun batean, bertatik paseoan nebilela eta patioa ikusi nuenean, han zerbait egin zitekeela pentsatu nuen. Tokia txikia izanik ere, margo polit batekin alaitasuna irabaziko zuela pentsatu nuen. Pentsatu eta egin, udaleko ordezkariekin eta haurreskolakoekin hitz egin nuen, eta ideia ona iruditu zitzaizenez, aurrera jo nuen. Esan beharrik ere ez dago, margotze lan hauek oso gustuko ditut. Jendeak asko gustatu zaiola esan dit, eta noski, ni horrekin oso pozik nago, merezi izan duela uste dut.

Topagunearen antzerkia



MAIATZAK 28, OSTIRALA

Haurrentzako "Erreka mari" txotxongilo emankizuna izan genuen Enkarni Genuaren eskutik. Itsasondoko gazte lekuan bildu zen haur eta guraso mordoa eta gezurra badirudi ere, txotxongilo arrunt hauek erabat bereganatu zuten haurren arreta. Betiko istorioek gaur egun ere indarrean darraitela erakutsi zuen. Bestelakorik pentsa bagenezake ere, lasai esan dezakegu, txotxongiloek betiko magia izaten jarraitzen dutela, baita gaur egungo haurrentzat ere.

MAITZAK 29, LARUNBATA

"Gezurrezko printzea" antzezlan izan zen Itsasondoko aterpe itxian. Antzerki emanaldia aurreko egunerako aurreikusia bazegoen ere, sari bat jaso behar zuenez, larunbatera atzeratu beharrean izan ginen. Egin zuen giro paregabeak eta inguruko herrietako jaiek ikusle askorik ez bertaratzea eragin zuen, baina ikusleak gustura egon ahal izan ziren. Hasieran gure protagonistarentzat barrea eta zoriona zena, pixkanaka zorigaizto bihurtzen da; printze urdina igel bihurtzen da, eta bizitza zulo ilun bat bihurtzen du horrek. Norberak lortu behar du argia eta eguzkia bizitzara ekartzea.

Urkiko jaiak



Maiatzeko Urkiko Gurutze Deunaren jaietan protagonista bakarra izan dugu: eguraldi txarra.

Hori esanik, larunbatean, maiatzak 1, hasi ziren mus txapelketarekin, eta Joxe Lasa eta Jeronimo Arza izan ziren txapeldun.

Ondoren, afaria izan zen oso giro onean, baina goiko jangelatik irten gabe.

Igande eguerdian, ateri zela aprobetxaturik, plaza jardun ahal izan zuten trikitilariak. Arratsaldean, euria tarteko, toka txapelketa bertan behera utzi behar izan genuen.

Astelehenean, hamaitetako jendetsua izan arren, egun osoan kanpoan soinurik jotzerik ez zela izan esan behar.

Laburbilduz, giro oso ona jai guztietan, eguraldi oso txarrarekin batera.

LA SAL DE LA VIDA

Gavalda, Anna



Denbora luzez elkar-rrengandik urrun egon ondoren, elkar topatzen duten hiru anai-arreben istorioa dugu hau. Hautzaroko oroitzapen ahaztezinak, beldurrak... Azken finean, anaien arteko harremanari omenaldi bat da liburu hau. Beti ere, modu alai eta umoretsuan idatzia, baina zenbait unetan nostalgikoa ere bai. "Juntos nada más" eta "La amaba" liburu arrakastatsuen egilearena da.

CRIMEN DIRECTO

Lackberg, Camilla




Suediako kostaldean gertatzen den hilketa bat da istorioaren abiapuntua; hortik aurrera, "reality" famatu baten grabaketaren inguruan murgiltzen da nobelaren trama; gaur egun pil-pilean dauden hainbat gaii errebaso egiten die liburuak.

Europa Iparraldeko idazleak erabat bereganatu dute azkenaldia misteriozko liburuen erreinua. Suediar idazle gazte honen liburu ezaguna dugu "La princesa de hielo" bestsellera.

ANTSOREN DORREAK

Martinez de Lezea, Toti



Eleberri honek Nafarroako erreinuaren garairik liluragarrienetako batera eramaten gaitu. 1004an Antso III.a Handiaren koroatzea izan zen; bere erreinaldian Hispaniako kristau erresumen hiru laurdenetako errege izatera iritsi zen. Guztiz karisma bereziko pertsonaia izan zen; haren biografiak, hala ere, lurralde-, erlijio- eta maitasun-kontuetan katramila askotan sartuta egon zela erakusten digu. Santiago bidea, monasterioen eta ospitaleen eraikuntza izango dira eleberri honen kapituluetan azalduz joango diren beste zenbait gai.

IHES LERROAK

Altube, Xabier



Alice eta Olatz. Bata arrotza, urrutikoa, miresgarria hargatik; bestea, gertukoa, hurbilekoa, maitagarria beraz. Nobela honetako protagonista bataren eta bestearen artean mugitzen da. Nora joan eta non geratu ez dakienaren mugimenduan. Eta mugimendu horrek ematen dio bizia, izaera.

TRONPATXO

Kazabon, Antton



Tronpatxo elefante pottoloa zoriontsu bizi da bere ama eta lagunekin, Keniako oihanean. Azken aldi, ordea, kezkatzen hasia da. Bere tronpa lagunena baino tikiagoa da. Tronpak laguntzen dio zuhaixkak ipurditik ateratzen, baina Tronboik eta Tronpetak barre tikiak egiten dizkiote. Gure elefante kumeak ez daki zer egin bere tronpatxo hori luzatzeko.

(lorezaintza gomendioak)

Diplanedia sanderii (mandevilla sanderii)

Landare gorakari hau Hego Amerikakoa (Brasil) da, eta egoera klimatologikoa kontuan izanda oso ondo egokitzen da Mediterraneo zonaldean, nahiz eta berau zaintzeko zenbait aholku kontuan izan behar diren. Gure artean ere goza dezakegu, bai barruko landare bezala, baita gure lorategi eta balkoietan ere.

Deskribapena:

Ostoak berde ilunak ditu, distiratsuak eta 4 eta 7 cm-koak. Lorek enbutu forma dute eta kolore gorria, zuria eta larrosa har dezakete. Lorazaintzan erabiltzen diren bariatateak hibridoak dira. Bere loraldia udaberritik udazken bukaeraino izaten da.

Zaintzea:

Kanpoan eduki dezakegu apiriletik urriraino, beti ere tenperatura 10° edo 12° baino altuagoa bada. Neguan beharrezkoa da izotzetik babestea, zero inguruko tenperaturek horitzea eta ostoak erortzea saihesten dutelako, eta ondorioz, landarea hil daiteke.

Sustratoa:

Lur arina behar du, mantilloa, turba eta hondarra duena, ura "estankatua" geratu ez dadin.

Ureztatzea:

Temperatura altuekin bi-hiru egunetik behin, baina beti uraren irteera ziurtatuz.

Argitasuna:

Argi asko behar du; zenbat eta argi gehiago, orduan eta lore gehiago emango dizkigu.

Ongarritatzea:

Loraldian hamabost egunetik behin komenigarria da ongarria botatzea.

Kimatzea:

Komeni da landare gazteei puntak moztea landare ederra goa egiteko eta gorputz sendoagoa izateko. Udazken edo negu hasieran moztu adar nagusienak hiru garren edo laugarren korapilora arte.



Maixel Garmendia
Izadia Loradenda. BEASAIN
943 88 14 40



(errezeta)

Frijitutako fideoak **marinela erara**

Osagaiak (4 pertsonentzako):

250 gr fideo (0 zenbakikoak)
Berdurak (2 azenario, porru 1, tipula 1, 4-5 bat leka, ilarrak eskukada bat, baratxuri hortz 1)
8 otarrainxa
Azal gabeko 12 ganba
12 txirla
200 gr. arrain (txapiroia, perka, itsas zapoa, bakailaoa, legatza...)
Olioa
Gatza
Litro bat arrain salda
Intxaur muskatu ehoa

Prestakuntza:

Hasteko, zartagin batean olio jarriko dugu berotzen, gero fideoak frijitzeko kolore marroia hartzen duten arte. Behin kolorea eman diogunean, txino baten bidez olio guztia kenduko diogu.

Beste alde batetik, eltze batean (paellera baten antzekoa) aurrez txikituko ditugun barazki guztiak jarriko ditugu olio ttantta batzuekin pixka bat egin daitezen, gero dauzkagun arrain desberdinak zatitu ondoren gehitzeko, txirla, otarrainxa eta ganbekin batera. Horiek guztiak erdi eginda daudenean fideoak gehituko dizkiegu, eta behin dena nahasturik dagoenean, arrain salda botako dugu (paella bat egingo bagenu bezala). Gatza eta intxaur muskatua gure gustura botako diogu eta sutan izango dugu salda lurrindu arte, noiz behinka nahastuz, erantsi ez daitezen. Fideoak prest izango ditugu jateko.



Jose Ignacio Duhau
Rubiorena Jatetxea. BEASAIN
943 88 57 60

Esatera zaharrak

"Asko balio du indarrak,
gehiago buru azkarrak".

"Beti jan eta beti me,
demonio lepome".

"Enbidosoa,
bere etsai osoa".



Kultur Agenda

Uztaila

- 3, 10, 17 eta 24 Zinema kalean
(gaueko 10etan, Goiko Plazan)

Abuztua

- 15: Abuztuko jaiak

Iraila

- 11,12 eta 14: Urkiko jaiak



Lehiaketa mundiala

Akatsarik ikusten al duzu argazkian?
Anima zaitetzte eta parte hartu zozketa
berezi batean!

Gure helbidea:
Itsasondo2.0@itsasondo.net



Lehiaketaren irabazlea:
Belen Garmendia

Zorionak!!!



Lehiaketa mundiala

itsasondo2.0

Herriko aldizkaria (((9. zk))) ekaina-iraila 2010

**Ale honetan parte hartu
dutenak honakoak dira:**



Ainara Martinez Matia
Alaitz Aierbe
Arantxa Arza
Arantzadi Elkarrea
Axier Bazaga
Belen Mendizabal
Danel Etxeberria
Eider Sodupe
Eskolako haurrak
Haizea Arruti
Haurreskolako Hezitzaileak
Iker Mendizabal
Jorge Gorrindo
Jose Ignacio Duhau
Jose Luis Aranburu
M^a Jose Arrizabalaga
M^a Teresa Elizegi
Maite Lasa
Maite Riaño
Maixabel Garmendia
Mikel Menizabal
Miren Segurola
Rosi Noguera
Unai Agirre
Zuberoa Jauregi

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua:
SS-297-2010

ISSN:
2171-5572

**! GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
IRAILEAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN.**

